I. tarifa (*)

| | |
|---|---|
| – Abiasaria | 2,78 euro. |
| – Egindako km | 0,8709 euro. |
| – Itxaronaldia, orduko | 16,64 euro. |

(*) Tarifa hau lanegunetan, 07:00etatik 23:00etara aplikatuko da.

II. tarifa(*)

| | |
|---|---|
| – Abiasaria | 2,78 euro. |
| – Egindako km | 1,3890 euro. |
| – Itxaronaldia, orduko | 26,15 euro. |

(*) Tarifa hau egunero aplikatuko da 23:00etatik 07:00etara; baita igandeetan eta Autonomia Erkidegoko eta Tokiko araudietan jaiegun diren egunetan ere, 07:00etatik 23:00etara. Larunbatetan 14:00etatik aurrera aplikatuko da.

Auto-taxi zerbitzuaren hiri-barruko tarifak taxiaren lizentziari dagokion udalerriaren lurralde-eremuan aplikatuko dira.

***Bigarrena.***– Erabaki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik jarriko da indarrean.

Ebazpen honek administrazioko bidea amaitzen du; beraz, bere aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dakioke EAEko Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horretako salari, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean hasi eta hilabete biko epearen barruan.

Vitoria-Gasteiz, 2006ko otsailaren 28a.

Euskadiko Prezioen Batzordeko lehendakaria,
JOSÉ LUIS MONTALBÁN MONGE.

Tarifa I (*)

| | |
|---|---|
| – Bajada de bandera | 2,78 euros. |
| – Km recorrido | 0,8709 euros. |
| – Hora de espera | 16,64 euros. |

(*) Esta tarifa será aplicable los días laborables entre las 07:00 horas y las 23:00 horas.

Tarifa II (*)

| | |
|---|---|
| – Bajada de bandera | 2,78 euros. |
| – Km recorrido | 1,3890 euros. |
| – Hora de espera | 26,15 euros. |

(*) Esta tarifa será aplicable todos los días, desde las 23:00 horas hasta las 07:00 horas. Se aplicará igualmente la tarifa II desde las 07:00 horas a las 23:00 horas los domingos y los días festivos fijados en la correspondiente normativa autonómica y local, así como los sábados a partir de las 14:00 horas.

Las tarifas urbanas del servicio de auto-taxi se aplicarán en el ámbito territorial de cada municipio en el que este residenciada la correspondiente licencia del taxi.

***Segundo.***– El presente acuerdo entrará en vigor al día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Contra esta resolución que agota la vía administrativa, podrá interponerse recurso contencioso-administrativo ante la Sala de esta jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de su publicación.

En Vitoria-Gasteiz, a 28 de febrero de 2006.

El Presidente de la Comisión de Precios de Euskadi,
JOSÉ LUIS MONTALBÁN MONGE.

## OSASUN SAILA

## 1367

31/2006 DEKRETUA, otsailaren 21ekoa, zentro, zerbitzu eta establezimendu sanitarioak baimentzeari buruzkoa.

Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 18.1 artikuluan ezartzen duenez, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio, bere mugapeko sanitatearen arloan, Estatuko oinarrizko legeria lege-bidez garatzea eta exekutatzea. Eskumen horri jarraiki eta Estatuak dagokion oinarrizko legeria eman ez bazuen ere, honakoak onartu ziren: lehenik, zerbitzu, zentro eta establezimendu sanitarioei buruzko azaroaren 2ko 206/1982 Dekretua

## DEPARTAMENTO DE SANIDAD

## 1367

DECRETO 31/2006, de 21 de febrero, de autorización de los centros, servicios y establecimientos sanitarios.

El Estatuto de Autonomía establece, en su artículo 18.1, que corresponde al País Vasco el desarrollo legislativo y la ejecución de la legislación básica del Estado en materia de sanidad interior. En virtud de dicha competencia y aunque el Estado no había dictado la legislación básica correspondiente, se aprobaron, primero, el Decreto 206/1982, de 2 de noviembre, sobre servicios, centros y establecimientos sanitarios y, posteriormen-

eta, gerora, zerbitzu, zentro edo establezimendu sanitario asistentzialak baimentzeari buruzko irailaren 10eko 271/1985 Dekretua. Biak zentro, zerbitzu eta establezimendu sanitarioak irekitzeko, jardunean jartzeko eta aldatzeko baimenei buruzko urriaren 11ko 396/1994 Dekretuak indargabetu zituen eta dekretu hori, hainbat aldaketekin, indarrean egon da orain arte.

Hala ere, arau-egoera asko aldatu da onartu zenetik. Lehenik, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legea argitaratu zen, gai hau arautzeko hainbat manu eskaintzen dituena. Horietarik garrantzitsuena 29. artikulua da. Artikulu honen arabera, zuzenean Euskal Autonomia Erkidegoaren menpe ez dauden eta haien lurralde-eremuan jarduten duten osasun-egiturak, haien titulartasuna zeinahi dela ere, osasun publikoaren tutoretza orokorra bermatzeko emandako antolamendu-arauei atxikiko zaizkie eta administrazio sanitarioaren baimen-printzipioaren arabera beteko dute haien jarduna, enpresa-askatasuna eta lanbide sanitarioak libreki betetzea eragotzi gabe. Ondoren 34.2 eta 35.4 artikuluak daude. 34.2 artikuluak, osasun kolektiboak hala eskatuta edo instalatzeko eta jardunean jartzeko eskakizunak ez betetzeagatik, kautelazko neurrien artean, behin-behineko etetea, jarduerak debekatzea eta zentroak, zerbitzuak edo establezimenduak ixtea barne hartzen du, eta, 35.4 artikuluaren arabera, aurretik baimenik edo osasun-erregistrorik ez duten establezimenduak, instalazioak edo zerbitzuak ixtea ez da zehapentzat joko; ezta, segurtasun eta osasun publikoa direla-eta exijitutako betekizunak konplitu arte edo akatsak konpondu arte, hauen jarduna etetea ere. 36. artikuluan aurreikusitako hainbat arau-hauste ere aipatu behar da, aurretiko administrazio sanitarioaren baimenaren menpe egon, baina baimen hori falta duten jarduerak burutzea edo garatzeari buruzkoak edo osasun-autoritateek formulatzen dituzten kautelazko edo behin betiko neurriak edo eskakizun bereziak ez betetzeari buruzkoak.

Bigarrenik, Estatuak zentro, zerbitzu eta establezimendu sanitarioak baimentzeari buruzko oinarri orokorrak ezarri ditu, urriaren 10eko 1277/2003 Errege Dekretuaren bidez, honela, apirilaren 25eko Sanitateko 14/1986 Lege Orokorraren 29.1, 29.2 eta 40.9 artikuluetan eta Osasun Sistema Nazionalaren Kohesioari eta Kalitateari buruzko maiatzaren 28ko 16/2003 Legearen 26.2 eta 27.3 artikuluan xedatutakoa betez.

Aipatu errege dekretuak zentro, zerbitzu eta establezimendu sanitarioak baimentzeko prozeduraren oinarri orokorrak arautzen ditu, sailkapen, izendapen eta definizio komun bat ezartzen du denentzat eta Osasun eta Kontsumo Ministerioaren menpeko Katalogoa eta Erregistro orokorra sortzen ditu. Eta hau guztia zentro, zerbitzu eta establezimendu sanitarioak publikoak edo pribatuak diren eta euren maila edo mota kontuan hartu gabe. Zerbitzu sanitario bat bere jarduera nagusia sanitarioa ez den beste erakunde baten barnean egon

te, el Decreto 271/1985, de 10 de septiembre, sobre autorización de servicios, centros y establecimientos sanitarios asistenciales. Ambos fueron derogados por el Decreto 396/1994, de 11 de octubre, de autorizaciones de apertura, funcionamiento y modificación de centros, servicios y establecimientos sanitarios, que, con diversas modificaciones, ha conservado su vigencia durante todo este tiempo.

Sin embargo, el panorama normativo ha experimentado cambios importantes desde de su aprobación. En primer lugar, ha visto la luz la Ley 8/1997, de 26 de junio, de Ordenación Sanitaria de Euskadi, que dedica varios preceptos a regular esta materia. El más importante de ellos es el artículo 29, según el cual, las estructuras sanitarias que no dependan directamente de la Comunidad Autónoma de Euskadi y operen en su ámbito territorial, cualquiera que sea su titularidad, se sujetarán a las normas de ordenación dictadas para garantizar la tutela general de la salud pública y ejercerán su actividad conforme al principio de autorización administrativo-sanitaria previa, sin perjuicio de la libertad de empresa y libre ejercicio de las profesiones sanitarias. Le siguen el 34.2, que incluye entre las medidas cautelares la suspensión provisional, prohibición de las actividades y clausura de centros, servicios o establecimientos, por requerirlo la salud colectiva o por incumplimiento de los requisitos exigidos para su instalación y funcionamiento, y el 35.4, a tenor del cual no tendrán carácter de sanción la clausura o cierre de establecimientos, instalaciones o servicios que no cuenten con las previas autorizaciones o registros sanitarios preceptivos, o la suspensión de su funcionamiento hasta tanto se subsanen los defectos o se cumplan los requisitos exigidos por razones de sanidad, higiene o seguridad. También hay que citar diversas infracciones previstas en el artículo 36 relativas al ejercicio o desarrollo de actividades sujetas a autorización administrativo-sanitaria previa sin contar con ella o al incumplimiento de los requerimientos específicos y de las medidas cautelares o definitivas que formulen las autoridades sanitarias.

En segundo lugar, el Estado ha establecido las bases generales sobre autorización de centros, servicios y establecimientos sanitarios, mediante el Real Decreto 1277/2003, de 10 de octubre, dando cumplimiento así a lo previsto en los artículos 29.1, 29.2 y 40.9 de la Ley 14/1986, de 25 de abril, General de Sanidad, y 26.2 y 27.3 de la Ley 16/2003, de 28 de mayo, de Cohesión y Calidad del Sistema Nacional de Salud.

Dicho Real Decreto regula las bases generales del procedimiento de autorización de centros, servicios y establecimientos sanitarios, establece una clasificación, denominación y definición común para todos ellos y crea el Catálogo y Registro general dependiente del Ministerio de Sanidad y Consumo. Y todo ello con independencia de que los centros, servicios y establecimientos sanitarios sean públicos o privados, y de su clase o naturaleza. Merece la pena subrayar que contempla la posibilidad de que un servicio sanitario esté integrado

daitekeelako aukera badagoela azpimarratzea merezi du. Pentsa dezagun hirugarren adinekoen egoitzetan, espetxeetan, kirol-instalakuntzetan, bainuetxeetan, etab. Kasu horretan, jardunean jartzeko, zerbitzu sanitarioak baimen sanitarioa izan beharko du administrazio eskudunak aipatu erakundearen martxan ezartzea baimendu baino lehen. Halaber, zentro, zerbitzu eta establezimenduentzat bereizgarri ofizial bat sortzea azpimarratzen du, publikoaren harreraguneko leku ikusgarri batean ezarri behar dutena, pertsona erabiltzaileek osasun-autoritatearen baimena badutela jakin dezaten.

Aldaketa hauek zentro, zerbitzu eta establezimendu sanitarioen baimen eta erregistrorako beste dekretu araugile bat ematera daramate, 396/1994 Dekretua inspiratu zuten lerroak bazter utzi gabe. Honela, lerro kontinuista honen barnean, arau honen aplikazio-eremuan darraiten zentro, zerbitzu eta establezimendu sanitarioen artean, honakoak aipa ditzakegu: ospitaleak; atentzio espezializatuko zentroak; osasun-zentroak; anbulantziak eta bestelako ekipo mugikorrak; organo, ehun, hezur, odol eta gorputzeko bestelako isurkinen bankuak eta horiek guztiak lortzeko eta ezartzeko zentroak; laborategi klinikoak; kontsultategi asistentzialak; optikak; ortopediako kabineteak; Laneko Arriskuen Prebentzioko 31/1995 Legearen 31.3 artikuluan eta Prebentzioko Zerbitzuen Erregelamendua onartzen duen 39/1997 Errege Dekretuaren 37.3 artikuluan datozen jardun sanitarioak burutzen dituzten prebentzioko zerbitzuetako zentro edota unitateak; eta audioprotesien kabineteak. Era berean, eta begi bistako izaera sanitarioa izan arren, farmazia-atentzioko establezimenduak eta zerbitzuak kanpo geratzen dira, baita farmazia-bulegoen analisi kliniko, optika eta ortopedia sekzioak ere, hauek beraien arautegiaren bidez eraentzen baitira. Hori dela eta, eremu honetako aldaketa bakarra 1277/2003 Errege Dekretutik dator zuzenean eta hortzetako protesien laborategiak eta bainuetxeak kanpo uztea da, 396/1994 Dekretuaren menpe zeudenak eta zentro edo establezimendu sanitario izateari uzten diotenak, hauetan barne hartuta dauden zerbitzu sanitarioak izan ezik, noski.

Dekretu honen bidez arautzako baimen sanitarioak hiru dira: instalazioa, funtsezko aldaketak eta jardunean jartzea. Azken hau da garrantzitsuena, zentro, zerbitzu edo establezimendu sanitarioaren ateak publikoari irekitzea ahalbidetzen diona. Beste biak, hasi baino lehen, pertsona titularrari sortzeko edo aldaketak egiteko proiektua indarrean dagoen arautegiarekin bat datorrela bermatzeko dira. Merezi du azpimarratzea, aurreko arautegiarekin ez bezala, baimen hauek lortzeko ez dela dagokion udaletxearen lizentzia edo baimena eskatuko, baina bistan dago honek ez duela esan nahi zentro, zerbitzu edo establezimendu sanitarioek ez dutela baimen hori izan behar. Baimenaren menpe dauden funtsezko aldaketak zeintzuk diren ere zehazten da.

en una organización cuya actividad principal puede no ser sanitaria. Pensemos en las residencias de la tercera edad, las prisiones, las instalaciones deportivas, los balnearios, etc. En tal caso, el servicio sanitario deberá contar con la autorización sanitaria de funcionamiento antes de que la administración competente autorice la puesta en marcha de la mencionada organización. Igualmente, destaca la creación de un distintivo oficial para los centros, servicios y establecimientos, que éstos deben colocar en lugar visible de su zona de recepción al público, para que las personas usuarias sepan que cuentan con autorización de la autoridad sanitaria.

Estos cambios conducen a la necesidad de dictar un nuevo Decreto regulador de la autorización y registro de los centros, servicios y establecimientos sanitarios, sin por ello abandonar las líneas generales que inspiraron el Decreto 396/1994. Así, dentro de esta línea continuista, en cuanto a los centros, servicios y establecimientos que siguen permaneciendo dentro del ámbito de aplicación de esta norma, podemos citar los hospitales, los centros de atención especializada, los centros de salud, las ambulancias y otros equipos móviles, los centros de obtención, implantación y los bancos de órganos, tejidos, huesos, sangre y otros fluidos corporales, los laboratorios clínicos, las consultas asistenciales, las ópticas, los gabinetes ortopédicos, los centros o unidades de los servicios de prevención que realicen las actuaciones sanitarias contempladas en el artículo 31.3 de la Ley 31/1995, de Prevención de Riesgos Laborales y 37.3 del Real Decreto 39/1997, por el que se aprueba el Reglamentos de los Servicios de Prevención, y los gabinetes de audioprótesis. También, y pese a su evidente carácter sanitario, se mantiene la exclusión de los establecimientos y servicios de atención farmacéutica, así como las secciones de análisis clínicos, óptica y ortopedia de las oficinas de farmacia, que se rigen por su propia normativa. Por eso la única variación en este terreno procede directamente del Real Decreto 1277/2003 y es la exclusión de los laboratorios de prótesis dental y los balnearios, que estaban sometidos al Decreto 396/1994 y que dejan de ser considerados centros o establecimientos sanitarios, salvo, claro está, los servicios sanitarios integrados en estos últimos.

Las autorizaciones sanitarias reguladas por este Decreto son tres: instalación, modificaciones sustanciales y funcionamiento. Esta última es la de mayor importancia, la que permite abrir al público las puertas del centro, servicio o establecimiento sanitario. Las otras dos están concebidas para garantizar a la persona titular que su proyecto de creación o de modificación es acorde con la normativa vigente antes de emprenderlo. Merece la pena destacar que, a diferencia de lo que ocurría con la normativa anterior, para obtener estas autorizaciones en ningún caso se va a exigir la licencia o autorización del ayuntamiento correspondiente, lo que, como es obvio, no significa que los centros, servicios o establecimientos sanitarios puedan carecer de ella. También que se concretan cuáles son las modificaciones sustanciales sujetas a autorización.

396/1994 Dekretuak xedatzen ez zuen bezala, baimen-eskabideak epean ebazten ez badira, ezetsi direla ulertu beharko da.

Arau honek dakarren beste berrikuntza bat da honakoak arautzea: baimenen iraungitzea eta ezestea; zentro, zerbitzu eta establezimendu klandestinoak ixtea; eta osasun, higiene edo segurtasun arrazoiengatiko betekizunak konplitu arte edo akatsak konpondu arte baimenduen jarduna etetea, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren Legearekin bat.

Bestalde, zentro, zerbitzu eta establezimendu sanitarioetako pertsona titularren betebeharrak ezartzen dira, hauen artean, Osasun Sailari itxieraren eta funtsezkoak ez diren aldaketen berri ematea aipa daitezke.

Dekretu hau indarrean sartzean, sanitarioak ez diren erakundeetan integratutako zerbitzu sanitarioek instalatzeko eta jardunean jartzeko baimenak lortu beharko dituzte, orain arte ez bezala. Bidezkoa da egoera berrira egokitzeko epe bat ematea, xedapen gehigarri bakarrean egiten den moduan. Horrelako zerbait gertatzen da audioprotesi establezimenduekin. Hala ere, establezimendu hauek bildu beharreko betekizunak arautzen dituen inongo araurik ez dugula kontuan hartuz, oraingoz ezinezkoa da baimentzea. Haientzat beraz, arau hau indarrean sartzea atzeratu egiten da.

Adierazitako guztiarengatik, elkargo ofizialei eta sektoreko gizarte erakunde nagusiei entzun ostean, eta Euskadiko Aholkularitza Batzorde Juridikoarekin bat, Osasun sailburuak halaxe proposatuta, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2006ko otsailaren 21ean egindako bilkuran gaia eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

## I. KAPITULUA
## XEDAPEN OROKORRAK

*1. artikulua.–* Helburua.

Dekretu honen helburua da:

a) Euskal Autonomia Erkidegoan dauden zentro, zerbitzu eta establezimendu sanitarioen baimen sanitarioak arautzea, izan daitezen publikoak nola pribatuak.

b) Aipatu zentro, zerbitzu eta establezimendu sanitarioetako pertsona titularren betebeharrak ezartzea.

*2. artikulua.–* Aplikazio-eremua.

1.– Dekretu honen ondorioetarako, zentro, zerbitzu eta establezimendu sanitariotzat hartzen dira urriaren 10eko 1277/2003 Errege Dekretuan definitu eta zerrendatutakoak.

A diferencia de lo que establecía el Decreto 396/1994, la falta de resolución en plazo de las solicitudes de autorización tiene efectos desestimatorios.

Otra novedad que esta norma introduce es la regulación de la extinción y la revocación de las autorizaciones, el cierre de los centros, servicios y establecimientos clandestinos y la suspensión del funcionamiento de los autorizados hasta tanto se subsanen los defectos o se cumplan los requisitos exigidos por razones de sanidad, higiene o seguridad, de conformidad con lo establecido en la Ley de Ordenación Sanitaria de Euskadi.

Por otra parte, se establecen las obligaciones de las personas titulares de los centros, servicios y establecimientos sanitarios, entre las que se puede mencionar la de comunicar al Departamento de Sanidad el cierre y las modificaciones no sustanciales de los mismos.

A la entrada en vigor de este Decreto los servicios sanitarios integrados en organizaciones no sanitarias estarán obligados a obtener las autorizaciones de instalación y funcionamiento, que hasta ese momento no necesitaban. Es razonable concederles un plazo para adaptarse a la nueva situación, lo que se hace en la disposición adicional única. Algo parecido ocurre con los establecimientos de audioprótesis. Sin embargo, habida cuenta de que no disponemos de norma alguna que regule los requisitos que deben reunir estos establecimientos, por el momento resulta imposible autorizarlos. De ahí que para ellos se posponga la entrada en vigor de la norma.

Por todo lo expuesto, oídos los colegios oficiales y las organizaciones sociales más representativos del sector, y de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, a propuesta del Consejero de Sanidad, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 21 de febrero de 2006,

DISPONGO:

## CAPÍTULO I
## DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1.–* Objeto.

El presente Decreto tiene por objeto:

a) Regular las autorizaciones sanitarias de los centros, servicios y establecimientos sanitarios, tanto públicos como privados, que estén ubicados en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

b) Establecer las obligaciones de las personas titulares de dichos centros, servicios y establecimientos sanitarios.

*Artículo 2.–* Ámbito de aplicación.

1.– A los efectos de este Decreto, se consideran centros, servicios y establecimientos sanitarios los definidos y relacionados en el Real Decreto 1277/2003, de 10 de octubre.

2.– Dekretu honen aplikazio-eremutik kanpo eta euren araubide espezifikoak eraendurik geratzen dira:

a) Medikamentuak edo produktu sanitarioak banatu, inportatu edo ekoizten diharduten establezimenduak, hortz-protesien laborategiak eta albaitaritzako medikamentuak banatu eta ematearekin, pentsu-sendagarriak ekoitzi eta banatzearekin eta albaitari-erabilpeneko autotxertoa ekoiztearekin lotutako establezimenduak.

b) Babes erradiologikoko zerbitzuak eta unitate teknikoak.

c) Farmazia-atentzioko establezimenduak eta zerbitzuak, baita farmazia-bulegoen analisi klinikoko, optikako eta ortopediako sekzioak ere.

3.– Laneko Arriskuen Prebentzioko 31/1995 Legearen 31.3 artikuluan eta Prebentzioko Zerbitzuen Erregelamendua onartzen duen 39/1997 Errege Dekretuaren 37.3 artikuluan datozen jardun sanitarioak burutzen dituzten prebentzio-zerbitzuetako zentro edo unitateak dekretu honen pean daude, aurrezaintzako-zerbitzuek Euskal Autonomia Erkidegoan burutzen dituzten jarduera sanitarioak arautzen dituen uztailaren 27ko 306/1999 Dekretuan xedatutakoarekin edo hau ordezkatzen duten arauekin bateragarri den guztian.

*3. artikulua.*– Baimen sanitario motak.

Dekretu honen bidez araututako baimen sanitarioak honakoak dira:

a) Instalatzeko baimen sanitarioa.

b) Funtsezko aldaketak egiteko baimen sanitarioa.

c) Jardunean jartzeko baimen sanitarioa.

*4. artikulua.*– Zentro, zerbitzu eta establezimendu sanitarioak baimentzea.

1.– Dekretu honen aplikazio-eremuaren barnean dauden zentro, zerbitzu eta establezimendu sanitario guztiek, beren jarduera nagusia sanitarioa ez den erakundeen barnean dauden zerbitzuak barne, instalatzeko eta jardunean jartzeko baimen sanitarioak lortu behar dituzte.

2.– Funtsezko aldaketak egiteko baimen sanitarioa ere eskuratu behar dute, horretarako aurreikusitako baldintzak biltzen direnean.

3.– Aurreko bi idatz-zatietan xedatutakotik salbuetsita daude aurretik beste autonomia-erkidego batek baimendutako asistentzia sanitarioko zentro mugikorrak, betiere haien titularrek aurretik Osasun Sailari haien jardueren hasieraren berri eman eta aipatu erkidegoak emandako baimena aurkezten badiote.

4.– Dekretu honetan araututako baimen sanitarioak lortzeak ez ditu zentro, zerbitzu eta establezimendu sanitarioak publikoari irekitzeko, bere jarduerak garatzeko edo bere aparatuen edo ekipoen funtzionamendura-

2.– Quedan excluidos del ámbito de aplicación de este Decreto, rigiéndose por su normativa específica:

a) Los establecimientos dedicados a la distribución, importación o elaboración de medicamentos o productos sanitarios, incluidos los laboratorios de prótesis dental y los establecimientos relacionados con la distribución y dispensación de medicamentos veterinarios, la fabricación y distribución de piensos medicamentosos y la elaboración de autovacunas de uso veterinario.

b) Los servicios y unidades técnicas de protección radiológica.

c) Los establecimientos y servicios de atención farmacéutica, incluidas las secciones de óptica, ortopedia y análisis clínicos en las oficinas de farmacia.

3.– Los centros o unidades de los servicios de prevención que realicen las actuaciones sanitarias contempladas en los artículos 31.3 de la Ley 31/1995, de Prevención de Riesgos Laborales, y 37.3 del Real Decreto 39/1997, por el que se aprueba el Reglamento de los Servicios de Prevención, están sometidos a este Decreto en todo aquello que resulte compatible con lo establecido en el Decreto 306/1999, de 27 de julio, por el que se regulan las actuaciones sanitarias de los servicios de prevención en la Comunidad Autónoma de Euskadi, o en las normas que lo sustituyan.

*Artículo 3.*– Tipos de autorizaciones sanitarias.

Las autorizaciones sanitarias reguladas por este Decreto son:

a) Autorización sanitaria de instalación.

b) Autorización sanitaria de modificaciones sustanciales.

c) Autorización sanitaria de funcionamiento.

*Artículo 4.*– Autorización de los centros, servicios y establecimientos sanitarios.

1.– Todos los centros, servicios y establecimientos sanitarios comprendidos en el ámbito de aplicación del presente Decreto, incluidos los servicios integrados en organizaciones cuya actividad principal no sea sanitaria, han de obtener las autorizaciones sanitarias de instalación y de funcionamiento.

2.– También han de obtener la autorización sanitaria de modificaciones sustanciales cuando concurran las circunstancias previstas para ello.

3.– Se exceptúan de lo establecido en los dos apartados anteriores los centros móviles de asistencia sanitaria que hayan sido previamente autorizados por otra Comunidad Autónoma, siempre que sus titulares comuniquen previamente al Departamento de Sanidad el inicio de sus actividades y presenten la autorización emitida por dicha comunidad.

4.– La obtención de las autorizaciones sanitarias reguladas en este Decreto no exime a los centros, servicios y establecimientos sanitarios de la obtención del resto de autorizaciones o licencias que sean precisas pa-

ko behar diren gainontzeko baimenak lortu behar izatetik salbuesten.

*5. artikulua.–* Zentro, zerbitzu eta establezimendu sanitarioen Erregistroa.

Administrazio sanitarioak baimendutako zentro, zerbitzu eta establezimendu sanitarioak zentro, zerbitzu eta establezimendu sanitarioen Erregistroan inskribatzen ditu.

*6. artikulua.–* Zentro, zerbitzu eta establezimendu sanitarioen kontrola eta ikuskapena.

1.– Zentro, zerbitzu eta establezimendu sanitarioek Osasun Sailaren kontrola jasan behar dute, Estatuko Osasun Sistemaren Kohesioa eta Kalitateari buruzko maiatzaren 28ko 16/2003 Legearen 6. artikuluan aurreikusitako moduan.

2.– Zentro, zerbitzu eta establezimendu sanitarioen ikuskapena Euskadiko Osasun Antolamenduari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 33. artikuluan xedatutakoaren arabera burutuko da.

*7. artikulua.–* Zentro, zerbitzu eta establezimendu sanitarioetako pertsona titularren betebeharrak.

Zentro, zerbitzu eta establezimendu sanitarioetako pertsona titularrek honako betebeharrak izango dituzte:

a) Hauetan baimendutako eskaintza asistentzialaren babespean dagoen atentzio sanitarioa ematen dela bermatzea, jardunbide profesional zuzenaren eta uneoroko zientziaren ezagutzen arabera.

b) Hauetan baimendutako eskaintza asistentzialak babestu gabeko atentzio sanitariorik ez dela ematen dela bermatzea.

c) Ematen den asistentzia sanitarioa behar bezalako tituluak edo prestakuntza duten pertsonek soilik ematen dutela bermatzea.

d) Zentro, zerbitzu edo establezimendu sanitario mota bakoitzarentzat indarrean dauden arauek ezartzen dituzten baldintzak eta betebehar teknikoak mantentzea.

e) Kanpoko errotulazioan zentro, zerbitzu edo establezimendu sanitarioa Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak baimendutakoa dela aipatzea.

f) Publikoaren harreragunean eta era ikusgarrian jardunean jartzeko baimenari dagokion ezaugarria ipintzea.

g) Langile guztien identifikazio zuzena bermatzea, beren izen eta lanbide-kategoria beren jantziaren leku ikusgarri batean erakutsiz.

h) Osasun Sailari hauen funtsezkoak ez diren aldaketen eta itxieraren berri ematea.

i) Osasun Sailari eskatutako argibide guztiak helaraztea bere eskumena betetzeko.

ra su apertura al público, el desarrollo de sus actividades o el funcionamiento de sus aparatos o equipos.

*Artículo 5.–* Registro de los centros, servicios y establecimientos sanitarios.

La Administración sanitaria inscribe de oficio los centros, servicios y establecimientos sanitarios autorizados en el Registro de centros, servicios y establecimientos sanitarios.

*Artículo 6.–* Control e inspección de los centros, servicios y establecimientos sanitarios.

1.– Los centros, servicios y establecimientos sanitarios están sometidos al control del Departamento de Sanidad en los términos previstos en el artículo 6 de la Ley 16/2003, de 28 de mayo, de cohesión y calidad del Sistema Nacional de Salud.

2.– La inspección de los centros servicios y establecimientos sanitarios se desarrolla conforme a lo establecido en el artículo 33 de la Ley 8/1997, de 26 de junio, de Ordenación sanitaria de Euskadi.

*Artículo 7.–* Obligaciones de las personas titulares de los centros, servicios y establecimientos sanitarios.

Las personas titulares de los centros, servicios y establecimientos sanitarios están obligadas a:

a) Garantizar que en los mismos se presta la atención sanitaria amparada por la oferta asistencial autorizada, con arreglo a la correcta praxis profesional y a los conocimientos de la ciencia en cada momento.

b) Garantizar que en los mismos no se presta asistencia sanitaria no amparada por la oferta asistencial autorizada.

c) Garantizar que la asistencia sanitaria se presta exclusivamente por personas debidamente tituladas o habilitadas para ello.

d) Mantener las condiciones y los requisitos técnicos que establezcan las normas vigentes para cada tipo de centro, servicio o establecimiento sanitario.

e) Mencionar en su rotulación externa que el centro, servicio o establecimiento sanitario está autorizado por el Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco.

f) Colocar en la zona de recepción al público y de forma bien visible el distintivo correspondiente a la autorización de funcionamiento.

g) Garantizar la correcta identificación de todo su personal, mediante la exhibición en un lugar visible de su indumentaria de su nombre y su categoría profesional.

h) Comunicar al Departamento de Sanidad las modificaciones no sustanciales y el cierre de los mismos.

i) Facilitar la información que les sea requerida por el Departamento de Sanidad en el ejercicio de sus competencias.

## II. KAPITULUA
## INSTALATZEKO ETA FUNTSEZKO ALDAKETAK EGITEKO BAIMENAK

*8. artikulua.–* Instalatzeko baimena.

Zentro, zerbitzu edo establezimendu sanitario bat sortu nahi duen edozein pertsonak, izan fisikoa edo juridikoa, instalatzeko baimena lortu behar du aurretik.

*9. artikulua.–* Agiriak.

1.– Instalatzeko baimen-eskabidearekin batera honako agiri hauek helarazi behar dira:

a) Zentro, zerbitzu edo establezimendu sanitarioaren titularra pertsona fisikoa bada, Nortasun Agiria, pasaportea edo bere nortasuna egiaztatzeko balio duen beste edozein agiri.

b) Zentro, zerbitzu edo establezimendu sanitarioaren titularra Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua ez den beste pertsona juridiko bat bada, Identifikazio Fiskaleko Zenbakia, bere eratze-agiria, estatutuak, bere izenean jarduten duen pertsonaren ordezkaritza egiaztatzen duen agiria eta Nortasun Agiria, pasaportea edo bere nortasuna egiaztatzeko balio duen beste edozein agiri.

c) Zentro, zerbitzu eta establezimendu sanitarioaren deskripzio-memoria; bertan honakoa zehaztuko dira: bere kokalekua, ezaugarriak, instalazioak, barne-antolaketa eta eskaintza asistentziala eta jarduerak.

d) Lokalaren plano-multzoa eta xehetasun-planoa; bertan honakoak zehaztuko dira: sarrerak, espazioen banaketa eta azalerak.

e) Hala behar bada, zentro, zerbitzu eta establezimendu sanitarioaren arauek eskatzen dituzten agiriak.

f) Dagokion tasa ordaindu izanaren egiaztagiria.

2.– Beren jarduera nagusia sanitarioa ez den erakundeen barnean dauden zerbitzuei dagokienez, gainera, deskripzio-memorian jarduera nagusia zein den eta zerbitzu sanitarioarekin zer zerikusi duten adierazi beharko da, eta zerbitzu sanitarioak erakundearen instalazioen barnean duen kokapena ezagutzea ahalbidetu behar dute planoek.

*10. artikulua.–* Iraungitzea.

Instalatzeko baimena iraungitzen da:

a) Jakinarazpena egiten denetik urtebetera, bere sorrerak obra berri bat edo jada badagoen higiezin baten banaketaren edo egituraren aldaketarik ez dakarren zentro, zerbitzu edo establezimendu sanitarioen funtzionamendurik eskatu ez bada.

b) Jakinarazpena egiten denetik bi urtera, gainontzeko kasuetan obrak hasi ez edo gelditu badira.

*11. artikulua.–* Funtsezko aldaketak egiteko baimena.

## CAPÍTULO II
## AUTORIZACIONES DE INSTALACIÓN Y DE MODIFICACIONES SUSTANCIALES

*Artículo 8.–* Autorización de instalación.

Cualquier persona, física o jurídica, que pretenda crear un centro, servicio o establecimiento sanitario ha de obtener, con carácter previo, la autorización de instalación.

*Artículo 9.–* Documentación.

1.– La solicitud de instalación ha de venir acompañada de la siguiente documentación:

a) Si el titular del centro, servicio o establecimiento sanitario es una persona física, Documento Nacional de Identidad, pasaporte u otro documento válido para acreditar su identidad.

b) Si el titular del centro, servicio o establecimiento sanitario es una persona jurídica distinta de Osakidetza-Servicio vasco de salud, Número de Identificación Fiscal, su documento de constitución, estatutos, documento que demuestre la representación de la persona que actúa en su nombre y Documento Nacional de Identidad, pasaporte u otro documento válido para acreditar la identidad de ésta.

c) Memoria descriptiva del centro, servicio o establecimiento sanitario, en la que se especifique su ubicación, características, instalaciones, organización interna y oferta asistencial y actividades.

d) Plano de conjunto y detalle del local, con especificación de accesos, distribución de espacios y superficies.

e) En su caso, los documentos que requiera la norma reguladora del centro, servicio o establecimiento sanitario.

f) Justificante del pago de la tasa correspondiente.

2.– En el caso de los servicios integrados en organizaciones cuya actividad principal no sea sanitaria, además, en la memoria descriptiva se hará constar cuál es esta actividad principal y su relación con el servicio sanitario, y los planos deber permitir conocer la localización del servicio sanitario dentro de las instalaciones de la organización.

*Artículo 10.–* Caducidad.

La autorización de instalación caduca:

a) Al año de su notificación, si no se ha solicitado el funcionamiento de los centros, servicios o establecimientos sanitarios cuya creación no implica la realización de una obra nueva o la modificación de la estructura o distribución de un inmueble ya existente.

b) A los dos años de su notificación, si no se han iniciado o se han paralizado las obras en el resto de los casos.

*Artículo 11.–* Autorización de modificaciones sustanciales.

1.– Jardunean jartzeko baimena duen zentro, zerbitzu eta establezimendu sanitario baten funtsezko aldaketatzat honakoak hartuko dira:

a) Higiezinaren banaketa edo egitura aldatzea.

b) Erradioterapiako edo medikuntza nuklearreko unitate asistentzialak aldatzea.

c) Eskaintza asistentziala aldatzea.

d) Pertsona titularra aldatzea.

2.– Zentro, zerbitzu eta establezimendu sanitario batean funtsezko aldaketak burutzeko, aurretik, aldaketa egiteko dagokion baimena lortu behar da.

*12. artikulua.–* Erradioterapiako edo medikuntza nuklearreko unitate asistentzialen edo higiezinaren egitura edo banaketa aldatzea.

1.– Erradioterapiako edo medikuntza nuklearreko unitate asistentzialen edo higiezinaren egitura edo banaketa aldatzeko eskabidearekin batera honako agiri hauek helarazi behar dira:

a) Zentro, zerbitzu edo establezimendu sanitarioaren titularra Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua ez den beste pertsona juridiko bat bada, eta bere izenean jarduten duena Osasun Sailaren artxiboetan ageri den ez den pertsona fisiko bat bada, bere ordezkaritza egiaztatzen duen agiria eta Nortasun Agiria, pasaportea edo bere nortasuna egiaztatzeko balio duen beste edozein agiri.

b) Proposatutako aldaketa justifikatzen duen memoria, bertan aurreikusitako exekuzio-epea, zentro, zerbitzu eta establezimendu sanitarioaren asistentzia-kalitatea eta funtzionamendu egokia edo, holakorik ezean, behin-behineko itxiera bermatzeko hartuko diren neurriak zehaztuko dira.

c) Lokalaren plano-multzoa eta xehetasun-planoa; bertan sarrerak, espazioen banaketa eta azalerak zehaztuko dira.

d) Hala behar bada, zentro, zerbitzu eta establezimendu sanitarioaren arauek eskatzen dituzten agiriak.

e) Dagokion tasa ordaindu izanaren egiaztagiria.

2.– Jakinarazpena egin eta urtebetera obrak hasi ez badira, erradioterapiako edo medikuntza nuklearreko higiezinaren edo unitate asistentzialen egitura edo banaketa aldatzeko baimena iraungiko da.

*13. artikulua.–* Eskaintza asistentziala aldatzea.

Eskaintza asistentziala aldatzeko eskabidearekin batera honako agiri hauek helarazi behar dira:

a) Zentro, zerbitzu edo establezimendu sanitarioaren titularra Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua ez den beste pertsona juridiko bat bada, eta bere izenean jarduten duena Osasun Sailaren artxiboetan ageri den ez den pertsona fisiko bat bada, bere ordezkaritza egiaz-

1.– Se consideran modificaciones sustanciales de un centro, servicio o establecimiento sanitario que cuente con autorización de funcionamiento:

a) La modificación de la estructura o distribución del inmueble.

b) La modificación de las unidades asistenciales de radioterapia o medicina nuclear.

c) El cambio de la oferta asistencial.

d) El cambio de la persona titular.

2.– Para llevar a cabo modificaciones sustanciales en un centro, servicio o establecimiento sanitario ha de obtenerse, con carácter previo, la autorización de modificación correspondiente.

*Artículo 12.–* Modificación de la estructura o distribución del inmueble o de las unidades asistenciales de radioterapia o medicina nuclear.

1.– La solicitud de modificación de la estructura o distribución del inmueble o de las unidades asistenciales de radioterapia o medicina nuclear ha de venir acompañada de la siguiente documentación:

a) Si el titular del centro, servicio o establecimiento sanitario es una persona jurídica distinta de Osakidetza-Servicio vasco de salud, y quien actúa en su nombre es una persona física distinta de la que consta en los archivos del Departamento de Sanidad, documento que demuestre la representación y Documento Nacional de Identidad, pasaporte u otro documento válido para acreditar la identidad de aquélla.

b) Memoria justificativa de la modificación propuesta, con indicación del plazo de ejecución previsto, de las medidas que van a adoptarse para garantizar la calidad asistencial y el funcionamiento adecuado o, en su defecto, el cierre temporal del centro, servicio o establecimiento sanitario.

c) Plano de conjunto y detalle del local, con especificación de accesos, distribución de espacios y superficies.

d) En su caso, los documentos que requiera la norma reguladora del centro, servicio o establecimiento sanitario.

e) Justificante del pago de la tasa correspondiente.

2.– La autorización de modificación de la estructura o distribución del inmueble o de las unidades asistenciales de radioterapia o medicina nuclear caduca si al año de su notificación no se han iniciado las obras.

*Artículo 13.–* Cambio de la oferta asistencial.

La solicitud de cambio de la oferta asistencial ha venir acompañada de la siguiente documentación:

a) Si el titular del centro, servicio o establecimiento sanitario es una persona jurídica distinta de Osakidetza-Servicio vasco de salud, y quien actúa en su nombre es una persona física distinta de la que consta en los archivos del Departamento de Sanidad, documento que

tatzen duen agiria eta Nortasun Agiria, pasaportea edo bere nortasuna egiaztatzeko balio duen beste edozein agiri.

b) Eskaintza asistentzial berriaren deskripzio-memoria.

c) Hala behar bada, zentro, zerbitzu eta establezimendu sanitarioaren arauek eskatzen dituzten agiriak.

d) Dagokion tasa ordaindu izanaren egiaztagiria.

*14. artikulua.–* Pertsona titularra aldatzea.

Pertsona titularra aldatzeko eskabidearekin batera honako agiri hauek helarazi behar dira:

a) Zentro, zerbitzu edo establezimendu sanitarioaren lehengo titularra Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua ez den beste pertsona juridiko bat bada, eta bere izenean jarduten duena Osasun Sailaren artxiboetan ageri den ez den pertsona fisiko bat bada, bere ordezkaritza egiaztatzen duen agiria eta Nortasun Agiria, pasaportea edo bere nortasuna egiaztatzeko balio duen beste edozein agiri.

b) Zentro, zerbitzu edo establezimendu sanitarioaren titular berria pertsona fisikoa bada, Nortasun Agiria, pasaportea edo bere nortasuna egiaztatzeko balio duen beste edozein agiri.

c) Zentro, zerbitzu edo establezimendu sanitarioaren titular berria Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua ez den beste pertsona juridiko bat bada, Identifikazio Fiskaleko Zenbakia, bere eratze-agiria, estatutuak, bere izenean jarduten duen pertsonaren ordezkaritza egiaztatzen duen agiria eta Nortasun Agiria, pasaportea edo bere nortasuna egiaztatzeko balio duen beste edozein agiri.

d) Zentro, zerbitzu eta establezimendu sanitarioaren titularra aldatu izana egiaztatzen duten agiriak.

e) Dagokion tasa ordaindu izanaren egiaztagiria.

## III. KAPITULUA
## JARDUNEAN JARTZEKO BAIMENA

*15. artikulua.–* Ezaugarriak.

1.– Zentro, zerbitzu eta establezimendu sanitarioek jardunean jartzeko baimena izan beharko dute haien jarduna garatu ahal izateko.

2.– Jardunean jartzeko baimena lortu behar da:

a) Instalatzeko baimena duten zentro, zerbitzu eta establezimendu sanitario berrien jarduna hasi baino lehen.

b) Zentro, zerbitzu edo establezimendu sanitarioen funtsezko aldaketak egin eta gero eta dagozkien jardunak hasi baino lehen.

3.– Bi zerbitzu edo gehiagoz osatuta dauden zentroek jardunean jartzeko baimen bakarra izango dute

